

DIRU-SARRERAK

Prezioak argiak eta egokiak izatea garrantzitsua da. Horregatik, bezeroek zergatik dauden ordaintzen jakin behar dute.

Gure bezeroek eguneroko konponketa txikiengatik eta konponketa handiagoengatik ordainduko dute. Konponketaren/produktuaren arabera, prezioa altuagoa edo batxagoa izango da.

Konponketa txikiak behar izan dituzten ondasunen prezioa 20€ izango da, batez beste, eta konponketa handiak behar izan dituzten ondasunena prezioa 80€, batez beste. Hau da, 2-3 ordu baino gehiago ematen bada konponketa handia izango da, eta 2-3 ordu bitartean edo gutxiago konponketa txikia izango da.

Aurreikuspenen arabera, hilero konponketa txikiko 100 salmenta eta konponketa handiko 30 salmenta egingo ditugu. Beraz, hileko gure diru sarrerak ondorengoak izango dira:

Konponketa txikiak behar dituzten produktuak: $20\text{€} \times 100 = 2000\text{€}$

Konponketa handiak behar dituzten produktuak: $80\text{€} \times 30 = 2400\text{€}$

Guztira, hilero diru-sarrerak 4.400 €-koak izango dira. Hau da, urtero 52.800€-koa da

Ordaintzeko bi era izango ditugu: ordainketa bakarra edo epeko ordainketa.

Gainera, ordaintzeko 3 modu egongo dira: eskudiruan, txartelarekin edo online aplikazioan bertan.

Kurtsoak ere eskainiko ditugu astero behin eta 20 €/pertsonekin